

10 ortzadar  
08 05 13

PLAZAN

## LITERAKTUM

ATZO HASI ZEN ETA LARUNBATERA ARTE LUZATUKO DA LITERATURA JAIALDI HAU

# Letren eta lengoaiien festa Donostian da

DONOSTIA KULTURA

Testua: Esti Ezeiza

**L**ITERATURA eta letren mundua gustuko dituzte guztiak, hitzordu garrantzitsua dute aste honetan zehar, Gipuzkoako hiriburuan. Atzo hasi eta larunbatera arte luzatuko baita Donostia Udalak antolatutako Literaktum jaialdia. Oraingo hau laugarrena izango da, 2004an abiatu baitzuten ekimen hau. Saio guztiak Donostian bertan gauzatuko dira, baina hiriko gune ezberdinetan banatuta.

Literaktum literatur gortakaria modu aktiboan, parte-hartzailean eta sortzailean jorratzeko Letren eta Lengoaieen Festa gisa aurkezten da. Festa honek bestelako arte-moduekin ere lotzen du literatura, eta azken teknologiei, formatuei eta jorei irekirik dago.

Antolatzaileek azaldutakoaren arabera, "egitasmo honen helburua da, literatur gertaera modu berri batean lantzea", lengoia eta proposamen berriazaleen bitartez, honenbestez, literaturaren harreara aktibo eta kritikoa sustatzea bultzatu nahi dute. Aldi berean, publiko berrien partaidetza bultzatuz, eta literatura nahiz beste arte-adierazpideekin harremanetan jarritz. Azkenik, literatur sorkuntza eta ekoizpena sustatzea du xede.

Aurreko urteetan bezala, aurtien literaturaren inguruko hainbat proposamen eta formatu izango dira: Mahai-inguruak; Idazketa tailerrak; Etabaldak; Egileekin topaketak; Poesia erroztaldirak...

## EGITARAUA

**Maiatzak 13, gaur**

- 19:30etan: Okendo Kultur Etxean Espido Freireekin izango da Topaketa. Aurkezle lanetan Maria Pilar Rodriguez ariko da.

**Maiatzak 14, bihar**

- 19:00etan: Liburutegi Nagusiko Ekitaldi areroan Mikrofizio tailerra izango da. Fernando Iwasaki izango da bertako arduraduna.

**Maiatzak 15, etzi**

- 19:00etan: Ernest Lluch Kultur Etxean, 'Comic's y critica social' izenburupean debata izango da. Bertan, hizlari Maruru Entrialgo eta Juan Manuel Diaz de Gereñu izango dira. Aurkezlea berriz, Fernando Iwasaki izango da.

**Maiatzak 16, ostirala**

- 19:30etan: Tomasele Kultur Etxean, 'Historia ahoz-ahoz' mahai-inguru izango da. Amir Valle eta Juan Gutierrez izango dira mahaiakide.

**Maiatzak 17, larunbata**

- 18:00etan: Benartegi baserrian [Loyola: Kartzelaren atzealdean], Poesia Urumea bazterrean izeneko saioa izango da. Bertan izango dira Zehra Cirac, Xenia Dyakonova eta Angel Erro. Aurkezle lanetan Eli Tolaretxipi ariko da. Dena den, curria egingo balu, ekitaldia Loyola Kultur Etxean egingo litzateke.